

Aurtengo MU kirol jertseak badu diseinua

2013/12/16

Abenduaren 13an amaitu zen kirol jertsearen diseinua aurkezteko epea.

Azkenean 19 pertsonak hartu dute parte eta guztira 40 diseinu ezberdin aurkeztu dira lehiaketara. Guzti hauetatik diseinu bakarra izan behar zen aukeratua eta diseinuan aditu den batzordeak Eli Villarrek sortutakoa izan du gustukoena. Tartean beste hainbat diseinurekin berdinduta izan da baina, oinarrietan idatzirik zeuden irizpideak kontuan hartuta, ikusgai dagoen zortzigarren disenua gailendu da.

Epaimahaiaren iritziz, diseinu honetan, *"lehengo begiradan berehala islatzen da Mondragon Unibertsitateko komunitatea "mundu" bat balitz bezala eta bertan hainbat kirol ezberdin praktikatzeko aukera dagoela"*.

Azken finean *"Unibertsitate-kirolean eskaintzen den kirol modalitate aniztasuna ongi irudikatua"* dagoela uste izan du. Bestalde, *"emakumeak eta gizonezkoak ageri dira kirolean"* eta genero berdintasunari dagokionez, positiboki baloratu da. Diseinuaren grafikari erreparatuz, *"irudia erakargarria, originala eta modernoa"* dela iritzi dio epaimahaiak eta *"Mondragon Unibertsitatearen logoa ongi integratua"* egoteaz apte, argi ikusten dela. Amaitzeko, diseinu honek *"erreproduzitzeko kalitate ona"* duela ere hartu da kontuan. Azken finean, diseinua kolore bakarrean eta trazada egokia izatean errazago serigrafiatu daiteke. Dena den, epaimahaiak zuzenketa bat egiteko eskatu du, *"Mondragon Unibertsitateko logotipoa egokitzea"*. Hau da, *"irudian pixka bat erdiratu eta txikitzea"*.

Bigarren aldia da Mondragon Unibertsitateko kirol jertsearen diseinua lehiaketara atertzen dela eta iazko ikasturtean bezala, harrera oso ona izan du antolatzaileen arabera. Iazko partaide kopurua hobetu da eta kalitate aldetik maila altukoak izan dira lan guztiak. Hemen daude diseinu guztiak ikusgai.

MU Kirol Zerbitzutik eskerrak ematen dizuegu parte hartu duzuen guztioi, egindako lanak oso gustukoak izan ditugulako eta beste behin ere daukazuen sormen eta originaltasuna agerian geratu delako. Eta nola ez, zorionak Eli Villarri ere, bere diseinua MUko ikasleek MU, Euskadiko Unibertsitate-Kirol txapelketan eta beste hainbat txapelketetan erabiliko diren jertseetan ikusi ahal izango duelako.

Mila esker partaide guztioi eta jakin datorren urtean MUko kirol jertsearen diseinuaz aparte, Euskadiko Unibertsitate-Kirol Txapeletako logotipoa ere aterako dela konkurtsora.

Zuen sormenaz gozatzeko irrikitan gaude jada!



